

HAUR EUSKALDUNAK ETA ATZERRIKO HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA

Itziar Idiazabal

SARRERA

Euskal gizarteak eskolari aspalditik egin dio euskaraz irakastearen eskakizuna. Euskarak behar den bezala ikasi eta landutako hizkuntza izan behar du, alegia. Etxetik euskaldun izan ez arren, D ereduko ikastetxe gehienetan eta B ereduko zenbaitetan ere, euskara bereganatu du hainbat eta hainbat ikaslek. A ereduko ikasleek ez dute orohar lortzen euskarazko gaitasun praktikoa minimorik.

Euskal eskolaren oinarritzko eginkizun hau garatzeko oraindik zailtasun asko egon arren, gaur, euskal gizartearen atal haundi batek beste hizkuntza eskakizun berri bat egiten dio eskolari: atzerriko hizkuntza ere bertan irakastearena, hain zuzen ere. Eskakizun hau, gure gizartean, eskolatik kanpoko hainbat lagungarri bilatuz ari da bideratzen; akademia mota guztiez gain, atzerrian eginiko egonaldi garesti bezain modaz-koenak erruz ugaltu dira azken urteotan.

Euskararen irakatsi beharrak eta hartarako zegoen eta dagoen eskakizunak eraginik, aspaldi frogatu zen ikastoletan, euskarazko giro apropos batean haurrak murgilduz, beste eskola-gaiak ezezik, hizkuntza ere (euskara) ikasi egiten zutela umeei zailtasun haundiegirik gabe. Bati baino gehiagori entzun diot, nola, Kanadan izena eta ospea eman zaion hizkuntza irakasbide hau, murgilketarena alegia, hemen, halako izenik ematen ez bazitzaion ere, gure kontura eta aspaldiagotik, urratu eta garatu genuela euskararekin, nahiz eta instantzi akademiko edo administrazioaren babesik ez izan.

Hirugarren hizkuntza ere irakastea posible dela badakigu; hainbatek lortu dute. Ez edozein baldintzetan, ordea. Haurrak, eta gazteak ere, hizkuntza batekin harreman zuzen eta egokian jarri ezkerorik ikasi egiten du hizkuntza hori.

Euskara bigarren hizkuntza bezala irakaste bide arrakastatsuen murgilketa izan baldin bada, ingelesa edo beste atzerriko edozein hizkuntza eskolan irakaste bideak jorratu beharko dirala ere askok esan du. Alegia, ikasi nahi den hizkuntzarekin harreman zuzenak sortu eta, hizkuntza

bera baino, hizkuntza horren bitartez gauza berriak irakaste bideak emanaz.

Hala ere, eskolan, hiru hizkuntzen forma eta erabilera ezberdinak irakastea ez da Nolanahiko lana. Nola lortu hori guztia eskola-orduak hirukoiztu gabe?

Saio honetan, bigarren eta/edo atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan dauden edo ezagutzen ditugun teoria eta proposamen berri edo interesgarrien azalpen bat egin beharrenean, beste zerbait egitea erabaki dut. Hizkuntza irakaskuntzan, geure esperientziatik abiatu nahi dut. Euskararen eskolaratzeak erakutsi digunetik aztertu nahi nuke, gaur, egin-kizun berria bezala agertzen zaigun atzerriko hizkuntzaren eskolaratze goiztiarra.

Kongresu honetan bertan, Nicanor Ursuak esandakoak, bestalde, nere egitasmoa sendotu dit. Alegia, ezagutza eraiki egin behar da, ez da bat-bateko agerpen edo aurkikuntza izaten. Bestalde, irakasle honek emandako Barandiaranen aipua ere arira dator: "bizi izan ez duguna ez dugu ongi ulertzen". Beraz, hemen euskal ikaskuntzetan eta bereziki hizkuntzen ikaskuntzetan bizi izan duguna "ulertu" nahirik ekingo diot saioari. Lehenengo, hizkuntzaren eta bereziki, euskara bigarren hizkuntza izanik, bere eskolaratzeak erakutsi dizkigun hainbat gauza aipatuko ditut. Bigarren, hemen, atzerriko hizkuntza noiz eta nola irakatsi behar litzatekeenari buruz nere erizpideak azalduko ditut eta bide horretatik egindako edo bidean dauden esperientzia batzuei plazaratuko. Bukatzeko eta eztabaidarako, hainbat ondorio ateratzen ahaleginduko naiz.

I. HIZKUNTZA PEDAGOGIAN, EUSKARAREN IRAKASKUNTZA ESKEINTZEN DIZKIGUN ERAKUTSIAK

1. Hizkuntza irakaskuntza arrakastatsuen nahi-ta-nahiezko baldintza eskola komunitate osoaren (guraso-irakasle-ikasle) konpromezua da

Bigarren hizkuntzan (2.Hn) murgilketa esperientzia bat martxan jartzeko orduan, eskola komunitate osoa (guraso, ira-

kasle eta ikasle) ongi motibatua dagoenean izaten da arrakastatsuen. Bestela ez da ulertzen nola, hain egoera eskasetan egon diran ikastetxe askotan, (irakasle ez ongiegi prestatuak, eraikuntza desegokiak, material urriak, euskararen presentzia urria giroan, etabar) hainbeste haurrek euskara ikasi duten.

Frogatu ere egin da, hemen eta kanpoan, nola bigarren hizkuntzaren irakaskuntza tradizionalak (2.H beste ikasgai baten modura irakatsiaz, alegia), hizkuntzaren ezaguerarik ezeze hizkuntzarekiko atxikimenik eta jarrera baikorrik nola ez duen sortzen. Madariagak (1992), esate baterako, frogatzen du A ereduko eta herri nahiko euskaldun bateko ikasleek euskararekiko jarrera ezkorrek dituztela¹.

Hizkuntza gutxitu baten erreperazioa bezalako egitasmo kultural batek, ikusi da, giza-talde zabalak motiba ditzakeela behar bezala sustatzen badira. Eskolaren zerregin propioa, kulturaren transmisioa alegia, giro horren barruan itsasten baldin bada, haserako motibazio sare hura (eskolako komunitate osoarena) erabat indartzen da, bere emaitzak eskola eta hizkuntza lorpenetan antzematen direlarik.

2. Eskola barruan, hizkuntza irakastearen ardatza, bestalde, irakasleen profesionaltasunean eta ikastetxeko proiektu zehatz eta onartuan datza

Lehen aipatutako motibazioa ezeze, irakaslearen profesionaltasunak eta ikastetxearen egitasmo finkatuak berebiziko garrantzia duela ere ongi neurtu ahal izan dugu. Irakasleak zenbat eta profesionaltasun eta prestigio haundiagoa izan (hizkuntza bera ongi menderatu, errekurtsu didaktiko egoki bezain ugariak eta hizkuntz ikusmira funtzionala, adibidez) orduan eta emaitza hobekiak. Nolanahi ere, profesional onak ikastetxeko projektuan itsatsia behar du egon. Zenbat eta proiektu zehatzagoa eta onartuagoa izan, orduan eta emaitza hobekiak euskarari eta beste ikasgai guztietan. Nolabait esateko, eskola bateko proiektu onartua euskararen ongi irakatsi beharra izan denean, eskola osoaren hobekuntza gertatu izan da.

Eskola giroan, bestalde, interesgarri eta gustagarri diran eginkizunak euskaraz (ezagutzen ez den hizkuntzan, alegia) bideratzen diranean, euskara ikasteaz gain euskararekiko jarrera baikorra sortzen da. Alderantzikoa ere gerta daiteke, jakina! Euskaraz lan egin baina nolanihi egiten denean, nahiz eta ordu asko sartu batzutan, emaitzak ez dira onak izaten ez euskarazko ezagutzetan ez hizkuntza honekiko jarreretan.

3. Euskara dekretuz (agindu hutsez) irakatsi beharrak ez euskararik, ez euskararekiko atxikipenik ez hezkuntza hobekuntzarik ekarri digu

Hau ere, gaur ongi dakigun zerbait da. Eta duen garrantziagatik etzaigu ahaztea komeni. Irakaskuntza kontuetan -eta hizkuntza aldaketa edo bigarren hizkuntzaren egitasmoetan oraindik sakonkiago- agindu hutsa ustela izaten da. Sistemak errez bilatzen ditu zeharbideak legea alboratzeko. Gure A eredueta euskara "maria" berri bat da. Eta hau oso grabea da. Ikasketa hori bideratzeko, alperrik diru asko xahutzen delako alde batetik, eta hori baino latzagoa, bestetik, hezkuntza komunitate horietan (gurasa, ikasle eta irakasleengan) euskararekiko jarrera ezkorra eta desprestigioa sortarazten duelako. Bestalde, eredu hori jarraitzen duten ikastetxeetan, irakaskuntza elebidunak ekar ditzaken onura edo erreformarik ez dute nabarrituko.

1. Ikerketa honetan ez da frogatzen zerk duen eragin handiena: alegia, A ereduak sortzen duen jarrera ezkorra, ala jarrera ezkorra dutelako joaten diran zenbait familiatako umeak A eredura.

4. Eskolaurrean euskarazko murgilketa egokia burutuz gero, lehen zikloan euskara funtzionalki erabiltzeko hainako gaitasuna lortzen dute ikasleek

Bigarren hizkuntzaren murgilketa eskolaurrean bideratzeak aurrerapen / erraztasun handia ematen du, gero, eskola eskakizunak gehitzen dijoazen heinean, hizkuntza hori ikasgai huts izan beharrean ikasbide bezala ere erabil ahal izateko.

5. Eskolaurreko murgilketa, halere, ez da nahikoa garrantzia, 8. mailan ikasle guztiek hizkuntz gaitasun oinarrikoa lortua izateko. (Ikus EIFE 2 eta 3, B ereduko euskara emaitzak)

Euskara bezalako hizkuntza gutxiratu eskolan ongi mendera dadin, eskolaurreko murgilketa-ahalegin egokiaz gain, oinarriko irakaskuntza osoan behar da eskolaren laguntza. Zenbait ikasgai euskaraz ematea gutxieneko baldintza da eta, orohar, irakas-plangintza sendos bezain trinkoa behar dela frogatu dute ebaluaketa datuak B ereduaren emaitzetan ikus daitekeen bezala. (Ikus EIFE 2 eta 3).

Irakaskuntza osoa euskaraz egiten den kasuetan ere, bestalde, ezin da esan helburuak beti gaintzen direnik. Hainbat eta hainbat D eredueta eskolamur euskaraz erraztasunez komunikatzeko zailtasunak ditu.

6. Murgilketa ez bada, gure eskoletan ez da ziurtatzen euskararen eskurazkerik, nahiz eta zortzi eta hamar urte ikasten ihardun

Bigarren hizkuntza ikasgai soil eta isolatu bezala erakustek, ezer gutxitarako balio duela ongi frogatua dugu gure A eredu delako medioz.

Ezaguna da, bestalde, atzerriko/bigarren hizkuntzen irakaskuntza tradizionalaren bidetik zein maila eskasak lortzen diran Espainia osoan nahiz beste leku askotan. (Cummins, 1987).

Irakaslearen profesionaltasunak erakutsiko du, jakina, maila eta gune bakoitzean nolako bitarteko didaktikoak erabili. Izen hutsek (tradizionala, komunikatiboa, murgilketazkoa, etab.) ezer gutxi esan nahi baitute.

7. Eskola-ordu gutxirekin ere gaztelazko maila oinarrikoa (D eredukoek A eredukoaren parekoa) ikasle guztiek gaintzen dute Euskal Komunitate Autonomoan. (EIFE 1, 2, 3 eta HINE)

EIFE eta HINE ebaluaketa programen bitartez ikusi da, bestalde, froga normalizatueta gaztelaniar nahiko emaitza onak ematen dituztela hiru eredueta ikasleek. Alegia, nahiz eta eskolan ordu gutxi eman, gaztelaniako froga estandar batean eskatzen dena gure ikasleek menderatzen dute. (Hemen luze hitzegin daiteke, frogek neurtzen duten hizkuntza mailaz, adibidez, baina esandakoa datu bat bezala gorde daiteke)³.

8. Euskara ama-hizkuntzaren mailan menderatu ez arren, irakurketa, idazketa eta matematika ere, hizkuntza honetan, arrakastaz ikas daitezke eskolan

Irakaskuntza elebidunaren gauzatzeak, azken finean, irakas prozesu osoaren hainbat ezagutza eskuratu dizkigu. Garai batetan ezinezkotzat ematen zena, ongi menderatzen

2. Euskararen alde baino kontra gehiago egiten duen irakasteredu hau bere hortan mantentzen bada, jakina, ageriko helburuak ez diren beste batzuk lortu nahi direla argi dago. Politikaren eremuan ulertu behar gauza hauek.

3. Kontutan hartu behar lirateke Euskal Herriko giro sozio-linguistiko eta sozio-profesional ezberdinetako haurren erdarazko behar edo hutsune ezberdinak ere, gauza guztiak ongi egiteko.

ez den hizkuntza batetan irakurtzen ikastea, esaterako, gaur posible dela frogatu da. Jakina, oinarriko ezagutza bat behar da mezua ulertzeko (eskolaurreko murgilketak ematen duena, adibidez). Baina azken finean, irakurketa eta idazketa arrakastatsuen giltza ez dago idatziz agertzen den hizkuntzaren ezagutza hutsean, baizik eta, idatziz eman edo jaso nahi den informazioaren erakargarritasunean eta zentzuan. Bestalde, eta honen ondorioz, idatzian 2.Hn aurreratzeak ahozkoa ere hobetzen duela ikusi da⁴.

9. Ikasle elebidun euskaldunak ingelesa hobeto ikasten dute ikasle elebakarrak baino (Cenoz, 1992). B ereduko 8. mailako ikasle matematika emaitzak A eredukoak bezain onak edo hobekak dira (Lukas, 1990)

Emaitza hauek ere kontutan hartzekoak dira. Izan ere, gure artean ongi egiten den irakaskuntza elebiduna, beste lekuetan bezala, xede hizkuntzetan (euskara, gaztelania) ez zik bestelako akademi lorpenetan ere hobekuntzak lortzen ari baita. Hau ere ez da emaitza berria munduan. Kanadan eta beste hainbat lekutan horrela erakutsi dute ikerketak (Ikus, adibidez, McLaughlin, 1985). Beraz, gure herrian, hizkuntza eta akademiako eskakizunetan, ikastetxe elebidunak (euskararen irakaste "intentsiboa" edo bideratzen dutenak) izango lirakete eskola emaitzarik hobereak lortuko lituzketenak.

II. NOLA IRAKATSI ATZERRIKO HIZKUNTZA EUSKARA SEGURTATUZ

1. Noiz baino nola hasi ete ekin da hauzi nagusia hemen. Zergatik 3. mailan? Ikastetxe batek eskolaurrean edo bostgarrenean hastea nahiago baldin badu, posible ote da?

Euskal Herrian, Espainia osoan bezala, 3. mailan, dekretuz (LOGSEk hala diolako), atzerriko hizkuntza irakasten hasi beharra dago eta hala onartu dute gure hezkuntz erakunde ofizialek. (Ez da behintzat kontrako edo berezituriko jarrera ofizialik ezagutarazi)

Baina erakunde ofizialetatik eta Erreformatoren inguruan sortzen diren baldintzak ez dute inolako segurtasunik ematen goian aipatzen den helburua (bertako bi hizkuntza gain atzerriko bat ikastea) lortzeko. Hara hemen baieztapen honen argudio batzuk:

1. Atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza nola egin edo bideratu ez da zehazki esaten. Aurtengo ikastaroan (1993-94), 3, mailan, atzerriko hizkuntza derrigorrezko irakaskuntza bada ere, ez da, orain arte bederen, beharrian hori eta dagoeneko martxan dauden irakasteredu elebidunen arteko harremanak egokitu dituen plangintzarik bideratu⁵. Nola egin laguntzeko aholkurik ez badago, egiten dena neurtu eta hobetzeko ebaluaketa planik gutxiago hila dezakegu, zoritxarrez, gure erakunde arduradunetan.

4. Vigotsky-k (1934/1985) aspaldi esandakoa arira dator hemen: "hizkuntza idatzia, hain zuzen ere, hizkuntzaren algebra da (...) horri esker haurra hizkuntzaren mailarik abstraktuenera hel daiteke, hala, ahozko hizkuntzaren aurreko sistema psikikoa ere berregituratuz". (Schnewly, 1988, 9. or-tik jasoa).

5. 1993ko azaroan, atzerri hizkuntza gure eredu elebidunetara egokitzeko zegoen plangintzaren berri jakin nahi izan genuen Hezkuntz Erreformatoren Garapenerako Erakundearen Erantzuna, oraindik halakorik etzegoela izan zen. Egun hauetan jaso dugu (1994ko urtarrila) "Atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza Lehen Hezkuntzan. 2. Ziklorako Orientabide Didaktikoak" liburukia. Ez dakigu non eta norako pentsatuz eginak dauden orientabide hauek, ez baita bertan ez euskara, ez hemengo haur gehienen egoera elebiduna ezertarako aipatu ere egiten. Bertan datozen orientabideak munduko edozein lekutan edo akademiaren ingelesa irakasteleko eman ohi diren horietakoak bestetik ez dira.

II. Hizkuntza kontuetan, bereziki, indarrean dagoen lege-diaren (1982ko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legea) eskakizunak ez dirala betetzen garbi dago. Erakunde ofizialek berek bideratutako ebaluaketa programetan (EIFE I, EIFE II, EIFE III, HINE) behin eta berriro agertzen da A ereduetan, gutxienik, ez dela euskararekiko eskakizunik betetzen, ezta alderik ere. Hala ere, ez dago (ez dugu ezagutzen, behintzat) inolako egitasmorik desbideratze edo ezintasun hori konpontzeko⁶.

III. Bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan kantitate baldintzak (urte askoren buruan ordu mordo euskarari eskeini izatea, adibidez,) ez dira inolako garantzia emaitza onak lortzeko. Hori ongi jakinik ere, atzerriko hizkuntzaren plangintza berriari segurtatzen den baldintza bakarra kantitatea da (zortzi urte, alegia, 3. mailatik 10garrenera, derrigorrezko irakaskuntza bakarrik kontutan hartuz).

IV. Gizabanakoaren hizkuntza gaitasunak (eta bestelakoak ere bai) loturik edo harremanurik ematen direla jakinik, ezinezkoa da gure herritarrek lortu nahi (edo behar) dituzten hiru hizkuntzen irakaskuntza erizpide kontrajarri edo loturarik gabekoen bitartez behar bezala bideratzea. Eta lotura horiek nola eman behar edo eman daitezkeen jakiteko, ez dugu ezagutzen ezta ere, erakunde ofizialetan behintzat, inolako proposamenik.

2. Atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzan nolabaiteko murgilketaren edo hizkuntzaren tratamendu funtzionaletik jo behar dela uste da gaur

Eskolaurrean abiatu izan da 2.Hrekin harreman zuzena murgilketa eredu ezagunetan: gure artean euskaraz D eredu-tako haur erdaldunekin egiten dena, edo Canadian, ama-hizkuntza ingelesa duten haurrekin frantsesez egiten dena. Bigarren hizkuntza erabiltzen da hasera-haseratik irakasle eta haurraren arteko harremanetan, pertsona bat hizkuntza bat, giro bakoitzak hizkuntza bat eta/edo beste murgiltze baliapide batzueri esker. Haseran, jakina, 2.H horretan haurraren berbazko parte hartzea oso mugatua da. Eginkizunak dira ikasketaren ardatza eta irakaslearen hizkuntza, berriz, ekintza horien lagungarri eta ezaugarri nagusia.

Bigarren edo atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza funtzionalak, bestalde, nagusiki esan nahi duena zera da: hizkuntza bera eta bere formen ikasketa baino hizkuntza horren erabilera bideratzen dela. Alegia, hizkuntza horretaz baliatuko direla gauza berriak jakiteko, eginkizun interesgarrietan parte hartzeko, edo beste komunikazio esanguratsu edozein bideratu ahal izateko. Hizkuntz eginkizun hauek, jakina, 2.Hren ezagutza haundiago bat -gutxieneko ulermena behintzat- eskatzen dute.

3. Adituen ustez, bi edo hiru urtetan, 2.Hren ikasketa ongi antolatu baten ondoren, lor daiteke ulermen gaitasun nahikoa eta ekoizpenerako minimo batzu (ahoz, eta idatziz ere bai, adinaren arabera,) hizkuntza hori funtzionalki erabiltzeko. Alegia, hizkuntza horren bitartez gauza berriak ikasteko, eta beraz, murgilketa aberasgarriena bideratu ahal izateko

Plangintza honetan, jakina, haserako nahiz geroko murgilketaren programazio zehatza suposatzen behar da. Ez da aski haurrari 2.Hren zenbait input edo sarrera segurtatzea (2Hzko zenbait bideo saio, adib.). Nagusiki, eta alde batetik, eginkizun interesgarriak, parte-hartze edo interakzio zuzena eskatzen dutenak, haurrarentzat zentzudunak, izan behar

6. Bestalde, badakigu, aipatu ebaluaketa horiek bideratzen ziren Eusko Jaurilaritzako zerbitzuan, lehendik zetozen ebaluaketa egitasmo guzti horiek geldiaraziak daudela.

dute; bestetik, berriz, egoera horietan erabiltzen diran eta bere zentzu osoa jasotzen duten hizkuntza ereduak edo esamoldeak (ez nahi-ta-nahiez gramatika egiturak) eskeini egin behar zaizkio haurrari ikas ditzan. Hitzak, esamoldeak eta idatzmoldeak ez dira berez sortzen edo asmatzen hizkuntza bat ikasten ari geranean!

4. Konbeni da kontutan hartzea, gure artean eman daitekeen euskarazko eta -asate baterako- ingelesezko murgilketek oso ezberdinak dirala, hainbat aldagaien arabera:

- Irakasleen hizkuntz prestakuntza.
- Hiztun komunitate biziaren eskuragarritasuna.
- Hizkuntzaren normalizazio egoera.
- Haurren adina (3. mailan hasi ezkerro).
- Ikasleek duten hizkuntza idatziaren ezaguera maila.

Baina, antzekotasunak ere badaude:

- Gurasoek motibazio handia dute eta hizkuntza horren ikasketa, eskolari gizarteak zuzenean egiten dion eskakizun bat da.
- Didaktika baliabideak, oro har atzerriko hizkuntza landuenera euskaraz baino garatuagoak izan arren, irakaslearen didaktika prestakuntza antzekoa behar litzateke bi hizkuntzen irakaskuntza praktikan.

5. Eskolaurrean, atzerriko hizkuntzako murgilketa zuzena etxetik euskaldun diren haurrekin posible dela dirudi⁷. Baina, ezin da ahaztu euskarak, hizkuntza gutxiratua izanik, eskolaren bitartekotza behar beharrezkoa duela nahiz eta ikasleak etxetik euskaldunak izan

Haurrak etxetik euskaldunak (eta kaletik erdaldunak) direnean, ingelesezko murgilketa eskolaurrean bidera daitekeela dirudi hiru hizkuntza ikasi eta mantentzeko. Etxe eta inguru erdalduneko haurrekin ez dut uste bi hizkuntzen murgilketa, batera eta eskolaren bitarte hutsez, bidera daitekeenik gaurkoz, Euskal Herrian ezagutzen ditugun baliabideekin, behintzat.

Giro euskaldunetako eskola hauetan ezin dugu ahaztu, bestalde, beste bi hizkuntza ere plangintza berezia eskatzen dutela haurren eskolaratzea egokia gerta dadin. Esate baterako, gaztelaniaz, gutxienez idatzizko eta eskola-giroko zenbait hizkuntza-eskakizun segurtatzeko ahalegin berezia beharko da, giroak ematen ez duena osatzeko. Euskaraz berriz, euskal giroan lor dezaketen aberastasuna bereziki preziatu behar du eskolak. Honenbestez, euskarazko eredu aberatsak ere gara daitezten eta giro erdaldunetako umeentzat, askotan hain urrun gelditzen diran, erreferentzi puntu izan daitezten. Erantzukizun handia dute eskola hauetan, euskararen bizitasuna eta jatorritasuna mantendu eta indartu dadin.

6. Adin batetik aurrera, bestalde, 10-12-14 urteko ikasleek, txikiak baino adimen helduagoa dute edozein ezegutza lortzeko, eta baita hizkuntza ikasteko ere, nahiz eta askotan kontrakoa uste den. (McLaughlin, 1984)

Esan nahi baita, haur txikiak hizkuntza ikasteko gaitasun berezia dutenarena egia eta gezurra dela. Alegia, txikiari beti gutxiago eskatzen zaie eta dakiten guztia azaltzeko lotsarik ez

dutenez haiek, asko dakitenaren itxura egin dezakete. Zenbat eta adinduago eta norberaren jakituriaren kontzientzia handiago lotsak ere gehitu egiten dira eta eskakizunak ere handiago bilakatzen. Ondorioz, nagusiagoaren jakituriak mugatuagoa dirudi. Objektiboki neurtuz ordea, haundiek txikiak baino gehiago ikasten dute denbora berean.

Txikitan egin ez dena gero ezinezkoa denik ez da, beraz, pentsatu behar⁸. Ezberdina izango da 4 urtekoentzat edo 12koentzat saioak prestatzea, baina bi taldeetan adimen gaitasuna nahikoa bada zernahi ikasteko. Eskolaren prestakuntza da hemen giltzarria.

7. Administrazioak, ahal den erarik zehatzenean, derrigorrezko irakastaldiaren amaieran, edo beste epe batetan, zer ezagutzetara iritsi behar den eta lorpenak nola neurtuko diren esan behar luke. Ongi prestaturiko frogak normalizatuak ez dira nahi-ta-nahiez kaltegarriak. Horrekin batera, irakaslearen prestakuntzan, baliabide materialen eta curriculumen antolaketan eman beharko luke laguntza, adituak dituen heinean. Noiz hasi beharra ere marka dezake baina malgutasunez jokatu

Orohar, eta gure egoeran bereziki, atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza noiz eta nola bastearen erabakia ikastetxe bakoitzaren esku gera beharko luke. Hala, ikastetxe bakoitzak bere baliabideen arabera lehenago edo geroago abiatzea erabaki lezake, agindutako epean eskatzen den lorpenetara iristeko erantzukizunarekin. Ikastetxeen autonomia benetan gauzatu nahi bada aukerak eman behar lirake.

8. Atzerriko hizkuntza, 3. mailako nahi-ate-nahiezko beste irakasgai bat bezala planteiatzen bada, A eredu gehienetan euskara den bezelako "maria" berri bat izango dugu

Ikasgai berriak curriculumean sartzea oso nekeza da, nahiz eta prestaketa oso berezirik behar ez. Ikus adibidez, zer gertatzen den plastika edo soinketarekin, eta zer esanik ez musikarekin ikastetxe gehienetan. Beste hizkuntza bat curriculumean itsastea ezinezkoa gertatu izan da hainbat ikastetxeetan, gutxiengo lorpen batzuk segurtatuz, behintzat. Ikus A eruedetako ikasle guzti horiek jasan behar izan dituzten hainbeste eskola-ordu eta lortu dituzten emaitza eskasak! Ingelesarekin edo beste edozein atzerri-hizkuntzarekin oraindik okerrago izan daiteke ikasketa beste agindu baten modura ezartzen baldin bada.

III. ZENBAIT ESPERIENTZIA

Lehenengo adibidea, oraindik bere hastapenetan egonik eta emaitza erabakiorrik gabea bada ere, guztiz interesgarria deritzot. Gauzak ongi egitea ere posible dela baieztatu nahi nuke.

Ikastola handi bat da. Inguru erdalduneko kokatua dago (%30 baino biztanle euskaldun gutxiago). Bertako irakasle taldearen osagarri gisara, (beste ikastetxeetan bestelako espezialistak dituzten bezala) hizkuntzaren didaktikan adituak eta esperientzia handia duten bi irakasle dituzte ikastolako hizkuntzen irakaskuntza berrantolatzeko arduratuak. Hiru hizkuntzen plangintza batera egiten ari dira eta berau eskolaurretik batxilergoarte helarazi nahi da. Gehiengo erdalduna duen beste hainbat ikastetxek bezala, murgilketa bideratzen dute

7. Artigal, Cenoz eta bestek zenbait ikastoletan bideratzen ari diran ingelesezko murgilketa goiztiarra emaitza onak ematen ari omen da (zuzenean entzun didanaren arabera), baina oraindik ez dut ezagutzen lan idatzirik ikerketa honi buruz.

8. Nahiko frogatua dirudi, fonetikaren eremuan txikiak hobeto jasotzen dutela ikasten ari diren hizkuntzaren nortasuna, baina beste arloetan ez dago halako frogak zientifikorik aro goiztiaralari alde. (McLaughlin, 1984).

eskolaurrea, euskararen ulermen/mintzamen oinarriak segurtatzeko. Baina eskolaurretik bertatik, ongi pentsaturiko eta esanguratsu bezain oinarrizkoak diren hainbat eginkizunen inguruan programatu dituzte urte urte hizkuntza edukiak (globalizaturik dihardute hein handi batetan). Irakaslego osoaren partaidetzarekin batera, haurren lorpenen nahiz irakas prozesu osoaren jarraipen-ebaluaketa zorrotza mantentzen dutelarik. Adinean adineko gaitasunaren eta beste ikasgaietako edukien arabera, alkarrizketak, bakarrikizketak, gutunak, deialdiak, araudiak, aurkezpenak, azalpenak, proposamenak, bidaia edo ibilaldietako txostenak, argudiaketak euskaraz nola egin erakusten zaie ahoz zein idatziz.

Plangintza aurreratzen den heinean, hizkuntza erabilera ezberdin horiek gazteleraz ere lantzera doaz. Euskaraz jarraitutako bideak eta etxetik eta/edo kaletik dakiten gazteleraz zentzu batetan bidea errazten du baina, ez da nahikoa horrekin. Hizkuntza bakoitzean landu behar dira erabilera (testu) bakoitzerako hizkuntza horrek garatu dituen esan/idatz -moldeak.

Eskolaurrean euskaraz landu dituzten hizkuntza erabilera eta testu mota berberak, lehen zizkloan (3. nahiz 4. mailan) ingelesez lantzen dituzte, "ikasten dutena erabil dezatela" lemapean. Gelan ingelesezko giroa bat egin dute txoko bat antolatuz; ingelesezko irakasleak euskarakoarekin batera oso ongi daki zer egin behar den eta zer lortu nahi den irakas unitate bakoitzarekin, eta hala neurtzen dituzte, izan ere, haurren lorpenak eta irakas prozesuaren bideratze osoa.

Sei aste (12 ordu) besterik egin ez zutenean, neuk frogatu ahal izan nuen nola 4. mailako ikasgela bateko 22 ikasleak kapaz ziren, ingelesez, alkarrizketa arruntekoak diren agurrak, nortasunari buruzko galderak, egin nahiz erantzuteko, eta baita ere, bere kabuz, bakar-bakarrik, bere burua ingelesez aurkezteko. Kanpotik iristen nintzen honentzat eta gela osoarentzat, ikasle bakoitzak bere izena, neska ala mutila zen, nongoa zen, zenbat urte zituen, zer egiten zuen eta zein ikas mailatan zegoen adierazi zuen. Guzti hori ahoz adierazten zuten baina idatzia ere erabiltzeko gauza ziren, batez ere, esanean erabili behar zituzten formen oroigarri gisara. Txingudi ikastolan ari dira esperientzia hau burutzen, Rosa Mari Arano eta Elena Berazadi direlarik plangintzaren egileak⁹.

Eman duten balorazioa guztiz subjektiboa izanik ere, arrakastarako hainbat baldintza ematen dirala ikus daiteke: ikastetxe osoak onarturiko plangintza; eskolan lantzen diren hiru hizkuntzen inguruan eginiko proiektua; hizkuntz irakaskuntzan gaur egun ezagutzen diren kontzepturik egokien aritrik eginiko programazioa (eginkizun edo proiektu esanguratsuen arabera mailatutako testu mota ezberdinen lantzea, ahoz zein idatziz); irakaslegoaren prestasuna eta erantzukizuna; ikasleen ikasketaz gain irakas-prozesu osoaren ebaluaketa plan zehatza daramate;...

Beste ikastetxe batzuetan, orain arteko esperientzia, goi zizkloan eta batxillergoan burutu izan da. Ingelesa ikasgai bezala landu denean, ezagutzen ditugun lorpenekin. Gramatika, hiztegi eta esamolde hainbat ikasi arren gutxik lortu dute eskolaren eragin hutsez, hitzegiteko gaitasun oinarri korrik. Amerikar (eta euskaldun) gazteak laguntzaile (lektore) gisara erabiliak, eta beste hainbat ahaleginen ondoren, (irriti saio, antzerki, bisitaldi, etabar.) zenbait ikastetxetan

lortu omen dute Batxillerreko ikasle taldeetan, une batzutan, ingelesa harreman hizkuntza bezala erabiltzea¹⁰.

Ikusi ditudan beste proposamen batzuetan, 3. eta 4. mailan zenbait gizarte gai orokor lantzen dira ingelesa ikasten ari diren bitartean, gero, 5.etik aurrera edo, ikasgai ezberdinetako zenbait gai zehatz ingelesez emateko gauza izango diren esperanzan. Arrasateko AHIZKE erakundeak Bizkaiko zenbait ikastolekin burutzen hasi den esperientzia ikusi dut hau. Ez dut material zehatzik ez ikasgelarik ikusi.

Murgilketaren zentzuan, bada beste esperientzia bat, atzerrikoa bera, non oso plangintza ezberdina erabiltzen duten bigarren hizkuntza nahiz lehenengoa lantzeko. (Ikus Floris, 1988a eta 1988b) Aostako arana da, Italiako Iffarrea, eta han, gaur italiaraz egiten baldin bada ere, tradizioz frantsesa egin dute. Bertako erakundeek, kultur-tradizio hori berreskuratu nahirik, eskoletan frantsesaren irakaskuntza bultzatzen dute. Ezagutu dudan biderik berriena, hizkuntz alternantzia deiturikoa da eta lehen irakaskuntzan ematen da bereziki. Eskolaurrean frantses murgilketa ematen da eta haur guztiek italiara etxetik jakiteaz gain, frantsesa ulertu eta, hein batean, erabiltzeko ere gauza dira, italiara baino nekezago, bederen.

Irakasleek bi hizkuntza dakizkete eta biak erabiltzen dituzte ikasleekin; hauek ere bere bi hizkuntza erabiltzeko aukera dute ikasgelan. Proposamenaren gako hontan datza: hizkuntza bera ikasteko ordutegi berezirik ez dute. Gai ezberdinak lantzerakoan hizkuntza bat zein bestea erabiltzen dute irakasle eta ikasleek, hartarako oso ongi pentsatu eta prestatu saio didaktikoetan barna. Ahoz zein idatziz, hiztegi, testu, esamolde eta idatzmolde, material idatzi zein ahozko, egoki bezain ezberdinak bidenabar landuaz. Plangintza honen bitartez, denbora aurreratzen dute, hizkuntza benetako erabileretarako baliatzen dute, gauza berriak ikasi nahiz adierazteko. Hizkuntza (bere formak, bere gramatika) ikasteko ez dute zuzenean eskeinutako ordu edo saio berezirik, Frantsesa hango hizkuntza gutxitua den heinean, hizkuntza hontan ahalegintzen dira gehiago irakasleak, bereziki gai berriak aurkeztera doazenean. Bigarren hizkuntzaren trataera honen arrazoia oso zentzuzkoa da. Gai berri baten aurkezpena, haurrak oniegi menderatzen ez duen hizkuntzan egiteak benta jak ditu: jakintzat gauza gutxiago ematen dira; irakasleak ikaslearen ulermen mailari arreta haundiagoa eskeintzen dio, beraz, hizkuntza ezezik gai berriak ere hobeto ikasteko aukera ematen da irakasbide honen bitartez.

IV. EZTABAIDARAKO ONDORIO BATZUK

Atzerriko hizkuntza eskolan ikasi daiteke euskara baztertu gabe, baina ahalegin handia eskatzen duena eta erantzukizunez hartu beharreko erabakia da. Ikastetxe bakoitzak bere indarrak neurtuz, lan berezietarako prest dauden irakasleak bereziki zainduz eta, oro har, guraso (gizarte) eta eskolaren arteko harremanak hestutzeko sortzen ari den aukera berri hau sendotuz lor ditzake emaitzarik aberatsenak. Selektzioa, desberdintasuna, malgutasuna eta ahalegin berezien aritrik etorriko da hemen ere, beste giza-ekintzetan gertatzen ari den bezala, ekimen berriarentzat irtenbidea.

Euskal Herria txikia izanik ere, bertan, ikas-egoera eta hizkuntz-egoera oso ezberdinak aurki ditzakegu. Besteen esperientzia beti baliagarria da baina elebitasun eta eleaniztasun

9. Ikus Arano (1991), hizkuntzaren irakas antolaketaren adibide batzu xeheago ezagutu nahi izan ezkerro.

10. Emaitza hauek, Lauro ikastolan lortu zituztela baieztatzen zidan bertako arduradun batek.

egoerak beti dira bereziak. Bakoitzari berea egitea tokatuko zaio, beraz. Hori bai, egiten dena neurtu eta ezagutaraztea bezalakorik ez dago gure irakas-jakinduria haundituz joan dadin. Hala, geroz eta erantzun egokiagoak emanaz joan gaitezen.

Halere, eskolek -eta bereziki irakasleek- ahalegin handia egin behar badute ez dute txikiagoa egin behar Unibertsitateko -esan dezagun- adituek, aholkulari eta ardura-dun akademikoek. Izan ere, Filologietako ikasketetan, hizkuntzaren historia eta literatura asko eta gramatika da irakasten dena: fonologia, morfologia eta sintaxia; semantika ere, noiz behinka bakarrik. Bestalde, Euskal Filologia ez den beste filologietan (espainolean, ingelesean eta frantsesean, hain zuzen ere,) ez dago Hizkuntzaren Irakaskuntzarako Metodologiari edo antzekorik derrigorrezko ikasgaietan¹¹.

Gaur gaurkoz, gure unibertsitateko eskasia, zoritxarrez, ez dute hemengo hezkuntza-erakunde ofizialek ere betetzen, gorago aipatu dugunez. Euskararen irakaskuntzan dauden hutsuneak bete, gaztelaniaren irakaskuntza eskakizunak kontutan hartu eta duitasunezko atzerriko-hizkuntzaren irakaskuntza bideratzeko ez da kanpotik (edo Erreformaren aritrik) soluzio miresgarririk etorriko. Bertan, poliki baina sendo lan egiten duten ikastetxeak indartzea eta bere erakutsiak olio orbainak bezala zabaldu daitezten laguntzea da zerbait behintzat ongi egin dadin hatsarria jartzea. Deneri dena eskatuz, bete beharreko agindu berri bat indarrean jarriz, atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza "maria" berri baten bidean jartzea litzateke.

Lehen aipatu dugun bezala, edozein ezagutza aurkitu baino gehiago, eraiki egin behar da eta bizitzen dugun heinean ulertzen ditugu gauzak. Atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzan euskararenean baino maila hobetik abiatzen gara, halere. Ez ahal da alperrik izango azken hogeita hamar urtetan, hizkuntzaren irakaskuntzan eraiki eta bizi izan dugun guztia.

ERREFERENTZIAK

ARANO, R.M. (1991): Testu pedagogia eskolaurrean: testu monologal. In I. Idiazabal (ed.) *Pedagogía del texto. Testuaren Pedagogia*. Bilbao: Labayru. 141-158.

CENOZ, J. (1992): *Adquisición-Aprendizaje del inglés como segunda o tercera lengua*. UPV-EHU. Argitaratu Gabeko Tesi Doktorala.

CUMMINS, J. (1987): Research and theory in bilingual education: the Basque situation in internacional perspectiva. In *II Euskal Mundu-Biltzarra*; Euskara Biltzarra, 3. Atala, 197-210.

FLORIS, P. et al. (1988a): *Langues et Savoirs. Due lingue per sapere. Matériaux pour un apprentissage bilingue à l'école primaire de la Vallée d'Aoste. Vol. 1: Principes et Methodologie*. Supplément à L'Ecole Valdotaïne n. 14. Aoste.

FLORIS, P. et al. (1988 b): *Langues et Savoirs. Due lingue per sapere. Matériaux pour un apprentissage bilingue à l'école primaire de la Vallée d'Aoste. Vol. 2: Documents*. Supplément a L'Ecole Valdotaïne n.14. Aoste.

GABIÑA, J.J. et al. (1984): *EIFE (Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen eragina)*, Eusko Jaurlaritza: Argitalpen-Zerbitzu Nagusia.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, "Atzerriko hizkuntzaren Irakaskuntza Lehen Hezkuntzan. 2. Ziklorako Orientabide Didaktikoak" Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz, 1993.

LUKAS, J.F. (1990): *Trebetasun eta Errendimendu Matematikoa Testuinguru Elebidunean*. UPV-EHU. Argitaratu Gabeko Tesi Doktorala.

MADARIAGA, J.M. (1992): *Estudio de la influencia de los factores actitudinales y motivacionales en la adquisición del euskera*. UPV-EHU. Argitaratu Gabeko Tesi Doktorala.

McLAUGHLIN, B. (1984): *Second-Language Acquisition in Childhood: Volume 1. Preeschool Children* (Second edition) Hillsdale, N. J.: Lawrence Erlbaum.

McLAUGHLIN, B. (1985): *Second-Language Acquisition in Childhood: Volume 2. School-Age Children*. (Second edition) Hillsdale, N. J.: Lawrence Erlbaum.

SIERRA, J. et al. (1989): *EIFE 2. (Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen eragina)* Eusko Jaurlaritza: Argitalpen-Zerbitzu Nagusia.

SIERRA, J. et al. (1990): *EIFE 3. (Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen eragina)* Eusko Jaurlaritza: Argitalpen-Zerbitzu Nagusia.

SIERRA, J. et al. (1991): *HINE (Hizkuntza Idatziaren Neurketa Eskolan)*, Eusko Jaurlaritza: Argitalpen-Zerbitzu Nagusia.

11. Nola da posible Ministerio beretik eta urte beretan burutu diran bi erreforma nagusiak (LOGSErena eta Unibertsitateko ikasketa planena) hain harremanik gabeak izatea?. Ulertezina da, adibidez, nola Erreforma (zorioneko Erreforma!) hainbat astintzen den hizkuntzaren ikusmira diskurtsiboa eta testuala ez den ezertarako agertzen Euskal Herriko Unibertsitateko Filologietako Plan Berrietan.